

## Gaur lan hitzarmen hobe lortzeko egoera hobean gaude

### Ordainketa eskuordetuko taulen eguneratzearen eta egoeraren irakurketa

Gizarte ekimeneko ikastetxeetako langileen soldata duela 10 urte izoztuta dago; 2009 eta 2018 bitartean galdutako eros-ahalmena %12,4koa izan da, eta 2019raino %13koa. Sindikatu guztion plataforma bateratuan soldata aldarrikapenarekin 2018rako galdutako ahalmenaren %6,6 berreskuratu nahi dugu, eta 2019rako %9,8.

Hezkuntza sailak joan den ostegunean argitaratu zituen 2018rako ordainketa eskuordetuaren taulak; zenbatekoak ezagunak ziren jada, EAEko 2018ko Aurrekontu Legean onartuta baitzeuden; 2009tik hona soldata errealak izoztuta ditugunez, ordainketa eskuordetuko taula hauek 2009tik gure Hitzarmenaren baitan jasotzen ari garen soldata erreala baino (oinarrizko soldata + urteko osagarria) apur bat handiagoak dira. Alabaina, soldata taulen eguneratze horrek soldata errealarekiko suposatzen duen aldea oso urria da, %0,32 eta %1,54 bitartekoa; hots, oso urrun dago 2009 eta 2018 bitartean galdutako eros-ahalmenaren %12,4ko berreskurapenetik (ikus 1. taula).

Bestalde, patronalek beren azken proposamenean esaten dute gure soldata irizpide orokor baten arabera finkatu beharko litzatekeela: ordainketa eskuordetuaren tauletako zenbatekoa, gehi %0,5. Horrek ekarriko lukeen eros-ahalmenaren berreskurapena %2 azpitik utziko luke 2018rako etapa eta kolektibo guztientzat (ikus 2. taula).

Irizpide orokor gisa soldatak finantziazioaren baitan kokatuz patronalen helburua da gure soldaten eta KP-laren arteko lotura haustea eta alde batera uztea hamar urtean gure soldatak eguneratu ez izanak eragindako ondorioak. Nahi dute ahaztea 2010ean berehala aplikatu zituztela gure soldatetan Eusko Jaurilaritzak ordainketa eskuordetuko tauletan erabakitako murrizketak, gure hitzarmena nabarmen urratuz. Baita gure soldatak behar bezala ordainduz gero ikastetxeen etorkizuna arriskuan jartzen zelako mehatxua etengabe bota ziguten arren, urte hauetan guztiotan ordaindu dutela, arrazoi horregatik ikastetxe bat bera ere itxi ez delarik. Azken urteetan ordainketa eskuordetuko tauletan gure soldatetan somatu ez ditugun igoerak izan direla ahaztea ere nahi dute (2016 eta 2017 urteetan %1eko igoera izan zuten ordainketa eskuordetuko taulek).

Azken hiletan patronala ez da saiatu langileen eskariei erantzuna ematen; haatik, bere ahalegina izan da mobilizazioa indargabetzea, sindikatuaren arteko zatiketa sortzea eta langileengan nahasmena hedatzea. Halaber, lortu ez arren, saiatu da sindikatuok men egin eta zeharo murriztu genitzan mobilizatzeraren eraman gaituzten aldarriak. Soldatei dagokienez negoziatio-mahaiaren azken bileretan nahi izan zuten gure sinadurarekin 2018rako soldata eskaintza kaskarrari abala ematea, eta mehatxu egin zuten Eusko Jaurilaritzak 2018ko ordainketa eskuordetua ez zuela egingo (2009ko hitzarmenaren gainetik ozta-ozta zegoena).

Halere, zortzi greba egun hauekin langileok patronalei eta Eusko Jaurlaritzari argi utzi diegu bide honi ekin diogula gure lan baldintzak benetan hobetzeko asmoz, eta ez dugula amore emango.

Gaur Euskal Herrian edonork ezagutzen ditu gure aldarrikapenak, eta inork ezin du esan bidezkoak, oinarrikoak eta merezitakoak ez direnik. Gaur Euskal Herrian argi geratu da patronalek eta Jaurlaritzak beren erantzukizuna onartu eta erantzun bat eman behar dutela. Gaur, zalantzarik gabe, egoera hobean gaude gure eskariek erantzun serioa izan dezaten.

Datozen egunak ere beteak izango dira eta gertatzen dena ondo aztertu beharko dugu; patronalek eta Eusko Jaurlaritzak mugimenduak egingo dituztela aurreikusgarria izanik, mugimendu hauek aztertu eta etor litezkeen proposamenak baloratzea dagokigu, gure eskariek erantzuna izan dezaten erabakirik egokienak hartzearekin batera.

Argi dagoena da mobilizazioak eta greba dinamikak izan direla patronalak eta gobernua mugitzera eta proposamenak egitera behartu dituen; horregatik, plataforma bateratuaren eskariei erantzun egokirik eman ezean, bide hari eutsiko diogu.

Aurrera beti!!!!

**Tabla 1**

	<b>2009ko Hitzarmeneko soldata/Salarios Convenio 2009</b>	<b>Ordainketa eskuordetuko taulak 2018 (uztilla-abendua)/ tablas pago delegado 2018 (Julio-diciembre)</b>	<b>2009ko hitzarmeneko soldata igoera/ incremento sobre salario real 2009</b>	<b>Plataforma bateratuan eskaera 2018rako/ demanda unitaria para 2018</b>
<b>HH-LH</b>	2.235 € (2.223,88 + 11,12)	2.266,72 €	%1,42 (31,72 €)	2.384,93 € %6,6 (KPI +2 bai 2017 eta 2018rako)
<b>DBH I</b>	2.371,19 € (2.359,40 + 11,79)	2.407,73 €	%1,54 (36,54 €)	2.530,27 € %6,6 (KPI +2 bai 2017 eta 2018rako)
<b>DBH II, BATXI, FP</b>	2.597,58 € (2584,66 +12,92)	2.605,82 €	%0,32 (8,24 €)	2.771,84 € %6,6 (KPI +2 bai 2017 eta 2018rako)

Tabla 2

	Plataforma bateratuan eskaera demanda unitaria para 2018	2018rako/ plataforma para 2018	Patronalen eskeintza 2018rako/ oferta patronal 2018	2018ko soldatak %12,4ko KPIaz izango liratekeenak/ Salarios 2018 si se hubiesen actualizado al IPC
<b>HH-LH</b>	2.384,93 € %6,6 (KPI +2 bai 2017 eta 2018rako)		2.275,25 €  (% 1,8ko eroste ahalmenaren berreskurapena)	2.512,14 €  (2018rarteko eroste ahalmenaren berreskurapen osoa)
<b>DBH I</b>	2.530,27 € %6,6 (KPI +2 bai 2017 eta 2018rako)		2.416,79 €  (%1,923ko eroste ahalmenaren berreskurapena)	2.665,21 €  (2018rarteko eroste ahalmenaren berreskurapen osoa)
<b>DBH II,BATXI, FP</b>	2.771,84 € %6,6 (KPI +2 bai 2017 eta 2018rako)		2.629,40 €  (%1,225ko eroste ahalmenaren berreskurapena)	2.919,67 €  (2018rarteko eroste ahalmenaren berreskurapen osoa)

**Euskal Herrian 2019ko urtarrilak 28an**

## Hoy estamos en mejores condiciones de conseguir un buen Convenio

### Lectura sobre la actualización de las tablas de pago delegado y la situación actual

Las trabajadoras y trabajadores de los centros de enseñanza de iniciativa social llevamos 10 años con el salario congelado, la pérdida de poder adquisitivo acumulado entre 2009-2018 es de un 12,4%, y alcanza el 13% en 2019. La demanda salarial de la plataforma unitaria presentada por todos los sindicatos pretende recuperar para 2018 un 6,6% del poder adquisitivo perdido y un 9,8% para 2019.

El departamento de educación publicó el Jueves las tablas de pago delegado para 2018, tablas cuyas cuantías ya eran conocidas puesto que ya estaban aprobadas en la Ley de Presupuestos para 2018 de la CAPV y que debido a la congelación sistemática de nuestro salario real desde 2009, son algo superiores al salario real (salario base + complemento anual) que venimos percibiendo por convenio desde 2009. No obstante, el incremento sobre salario real que supone esta actualización de las tablas de pago delegado es de entre un escaso 0,32% y 1,54%, muy lejos de recuperar el 12,4% de pérdida de poder adquisitivo acumulado desde 2009 hasta 2018 (ver tabla 1).

Por su parte, en su última propuesta, la patronal plantea fijar nuestro salario en base a un criterio general consistente en las cuantías establecidas en las tablas de pago delegado + un 0,5%. Ello implicaría en términos de recuperación de poder adquisitivo una recuperación por debajo del 2% en todas las etapas y colectivos para el 2018 (ver tabla 2).

Con el establecimiento de este criterio general de vinculación a financiación, la patronal pretende que desvinculemos nuestros salarios de la evolución del IPC y que obviemos los efectos de no actualizar nuestros salarios en 10 años. Pretenden que olvidemos que en 2010 no tuvieron ningún reparo en trasladar directamente los recortes decididos por el Gobierno Vasco en las tablas de pago delegado a nuestros salarios, incumpliendo claramente nuestro convenio. Y que a pesar de que nos amenazaron constantemente con que no podían afrontar el pago de nuestros salarios sin poner en riesgo la viabilidad de los centros, durante todos estos años lo han podido hacer sin que se haya cerrado un solo centro debido a ello. También pretenden que obviemos que desde 2016 las tablas de pago delegado han tenido incrementos que, sin embargo, no han tenido ningún reflejo en nuestros salarios reales (las tablas de pago delegado han incrementado un 1% en 2016 y en 2017).

Durante los últimos meses, en vez de buscar las vías para responder a las demandas de las trabajadoras/es, la patronal ha dirigido sus esfuerzos a neutralizar la movilización, dividir a los sindicatos y crear confusión entre las trabajadoras/es. También ha intentado, sin éxito en este sector, que los sindicatos renunciásemos y rebajasemos hasta el extremo las reivindicaciones que nos han llevado a la movilización. Así, en el aspecto salarial en las últimas mesas de negociación intentaron que avalásemos con nuestra firma su oferta salarial a la baja para 2018 amenazándonos con que el Gobierno Vasco advertía de que no iba a realizar los ingresos de pago delegado correspondiente a 2018 que superaban escasamente el salario real 2009 del convenio.

Sin embargo, estos 8 días de huelga, las trabajadoras y trabajadores les hemos dejado claro a las patronales y al Gobierno Vasco que hemos iniciado este camino con el claro objetivo de conseguir contenidos que realmente repercutan en la mejora de nuestras condiciones laborales y que no vamos a renunciar a ello.

Hoy no hay nadie en Euskal Herria que no conozca nuestras reivindicaciones, nadie que pueda negar que son justas, básicas y merecidas. Hoy no hay nadie en Euskal Herria que no entienda que las patronales y el Gobierno Vasco deben asumir su responsabilidad y dar una respuesta. Hoy estamos sin lugar a dudas en mejores condiciones para que nuestras demandas sean contestadas con contenidos serios.

Los próximos días serán también intensos, se preven movimientos por parte de las patronales y el Gobierno Vasco. Deberemos analizar los movimientos que se hagan, valorar las posibles propuestas que pueda haber y tomar las decisiones más apropiadas de cara a conseguir que nuestras demandas tengan respuesta.

Lo que es evidente es que ha sido la movilización y la dinámica de huelgas la que ha obligado a las patronales y al Gobierno a moverse y a hacer propuestas, por lo que si los contenidos de la plataforma unitaria siguen sin tener respuesta, esa será la vía que deberemos continuar.

Aurrera beti!!!!

**Tabla 1**

	<b>2009ko Hitzarmeneko soldata/Salarios Convenio 2009</b>	<b>Ordainketa eskuordetuko taulak 2018 (uztilla-abendua)/ (uztilla-abendua)/ tablas delegado 2018 (Julio-diciembre)</b>	<b>2009ko hitzarmeneko soldata igoera/ incremento sobre salario real 2009</b>	<b>Plataforma bateratuan eskaera 2018rako/ demanda unitaria para 2018</b>
<b>HH-LH</b>	2.235 € (2.223,88 + 11,12)	2.266,72 €	%1,42 (31,72 €)	2.384,93 € %6,6 (KPI +2 bai 2017 eta 2018rako)
<b>DBH I</b>	2.371,19 € (2.359,40 + 11,79)	2.407,73 €	%1,54 (36,54 €)	2.530,27 € %6,6 (KPI +2 bai 2017 eta 2018rako)
<b>DBH II,BATXI, FP</b>	2.597,58 € (2584,66 +12,92)	2.605,82 €	%0,32 (8,24 €)	2.771,84 € %6,6 (KPI +2 bai 2017 eta 2018rako)

Tabla 2

	Plataforma bateratuan eskaera demanda unitaria para 2018	2018rako/ plataforma para 2018	Patronalen eskeintza 2018rako/ oferta patronal 2018	2018ko soldatak %12,4ko KPIaz izango liratekeenak/ Salarios 2018 si se hubiesen actualizado al IPC
<b>HH-LH</b>	2.384,93 € %6,6 (KPI +2 bai 2017 eta 2018rako)		2.275,25 €  (% 1,8ko eroste ahalmenaren berreskurapena)	2.512,14 €  (2018rarteko eroste ahalmenaren berreskurapen osoa)
<b>DBH I</b>	2.530,27 € %6,6 (KPI +2 bai 2017 eta 2018rako)		2.416,79 €  (%1,923ko eroste ahalmenaren berreskurapena)	2.665,21 €  (2018rarteko eroste ahalmenaren berreskurapen osoa)
<b>DBH II,BATXI, FP</b>	2.771,84 € %6,6 (KPI +2 bai 2017 eta 2018rako)		2.629,40 €  (%1,225ko eroste ahalmenaren berreskurapena)	2.919,67 €  (2018rarteko eroste ahalmenaren berreskurapen osoa)

Euskal Herrian 2019ko urtarrilak 28an